

1147. ZENBAKIDUN
ALKATETZAREN DEKRÉTUA

Xedea

Bermeoko Udalak 2017rako aseguru pribatuen kontratuak kudeatzeko bitartekaritza eta aholkularitza zerbitzuaren kontratua esleitzea.

Aurrekariak

Lehenengoa: 2016ko azaroaren 14ko Tokiko Gobernu Batzarrak, prozedura ireki bidezko lehiaketa hutsik deklaratu eban eta prozedura negoziaturako baldintza pleguak onartu eta deialdia zabaltzea onartu eban.

Bigarrena: Gonbiteak lau enpresatara bideratu ziran eta enpresa bakar batek aurkeztu dau bere eskaintza, AON GIL Y CARVAJAL hain zuzen.

Argudioak

Lehenengoa: Aitatutako enpresak aurkeztutako agiri guztiak eta proposamena aztertu ondoren, kontratazino mahaiak kontratua lizitatzailari esleitzeko proposamena egin eban eta, behin betiko bermea ipinteko errekerimendua egin jakon.

Bigarrena: AON GIL Y CARVAJAL enpresak emondako epe barruan ipini dau bermea eta, ondorioz, kontratua esleitu leike.

Erabagia

Goian aitaturako guztia kontutan hartuta, honako hau erabagi dot:

LEHENENGOA: Bermeoko Udalak 2017rako aseguru pribatuen kontratuak kudeatzeko bitartekaritza eta aholkularitza zerbitzuaren kontratua AON GIL Y CARVAJAL enpresari esleitzea, aurkeztutako proposamen eta hobekuntzen arabera (kontratuaren prezio estimatua luzapenak barne: 614.081,40 €)

BIGARRENA: Esleipenaren iragarkia Estatuko Aldizkari Ofizialean eta Europar Batasuneko Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Bermeen, 2016ko abenduaren 29an
ALKATEA

NIRE AURREAN
BEHIN-BEHINEKO
IDAZKARIA

